

## 2023KO ARTILE BILKETA

Kaixo baserritar, aurtengoan ere antolatu dugu artile bilketa, zerbitzua udan izango da.

laz bezala, aurten ere, ahalik eta gehien sinplifikatu nahi da, baina horrek, guztioi ahalegin handiagoa egitea eskatuko digu. Antolakuntzan hiru erakundek hartuko dugu parte: Landaolak, Lurgintzak eta Abelurrek.

Finantzaketaren zati bat GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK egingo du eta bestea artzainek.

Kostua ardi-kopuruaren araberakoa izango da, erantsitako koadroaren arabera. Tarifa hauek dirulaguntza aplikatuta daukate.

ARTALDEA	KOSTUA (B.E.Z. barne)
1--50	38,25
51-100	63,80
101-150	89,30
151-200	114,80
201-250	140,30
251-300	165,80
301-350	191,30
351-400	216,80
401-500	267,80
501-600	318,85
601-700	369,85
701 <	421,60

**Interesdunek 696 433 602 telefonora deitu behar dute.** Eman beharreko informazioa honakoa da:

Entregatzeko eguna, ordua eta tokia.

- Artzainak bere izena, deiturak, helbidea eta NAN eman beharko ditu, eta bat etorri beharko du artalde hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren kanpainako datuetan erregistratuta dagoen izenarekin. Informazio hori beharrezkoa da faktura egiteko. Faktura hau, garrantzi handiko dokumentua bihurtuko da erakundeen aurrean (ikuskapenetan) artilearekin zer egin den adierazteko garaian.
- Artzainak azken erroldan zenbat ardi dituen adieraziko du.

Entrega egiteko unean honela izango da antolaketa:

Laguntzailea:



Antolatzaileak:



- Artzain bakoitzak artilea entrega-lekura esandako orduan eramango du.
- Zakuak artzainak berak hustu beharko ditu, artilea suelto utzi behar da.
- **Entrega gunean sartzean, artzainak dagokion zenbatekoa ordaindu izanaren egiaztatzea erakutsiko dio bertan dagoen arduradunari.** Horrek esan nahi du artzainak entrega egin baino lehen ordaindu beharko duela. Egiaztatze hori ezean ez da artilerik jasoko. Ordainketa egiteko kontu zenbakia hau da: **CAJA RURAL ES50 3008 0152 6549 2039 5821 eta jarri beharreko kontzeptua: IZEN ABIZENAK+ BASERRIA**
- Entrega egin ondoren, entrega-leku horretako antolatzaileak faktura bat emango dio.

Egindako proposamenak artzainen ahalegin handiagoa eskatzen duela ulertzen dugu, baina profesional kopuru handia kudeatzeak ere kostu handiak dakartza, eta ahal den neurrian, mugatu behar ditugu. Kontutan izan behar da, artilea jaso ondoren, kamioi berezi batean eraman behar dela Nafarroara (Sandach produktua delako), kargatzeko luma-kamioi bat behar dela, eta, gainera, produktua eramaten den enpresan tasa bat ordaindu behar dela.

**DEITU BEHAR DEN TELEFONO ZENBAKIA: 696 433 602**

**ORDAINKETARAKO KONTU ZENBAKIA: CAJA RURAL ES50 3008 0152 6549 2039 5821**

**Jarri beharreko kontzeptua: IZEN ABIZENAK + BASERRIA**

ENTREGARAKO GUNEAK eta EGUNAK:

EGUNAK	LEKUAK	HELBIDEA
EKAINAK 12	AZPEITIA	LAPATX. UROLA ERDIKO MANKOMUNIDADEA, ERREZIL BIDEA Z/G (GARBIGUNEA)
EKAINAK 14	IDIAZABAL	DISEMINADO RURAL BARREIATUA 93 (GORROTXATEGIN GRANJA)
EKAINAK 19	ELGOIBAR	IMH IKASTETXEAREN AZPIKALDEKO APEA KARGADEROA (AZKUE AUZOA)
EKAINAK 21	OÑATI	URRUTXUKO EKARPEN GUNEA
EKAINAK 26	ASTEASU	AGROALDEAN, ZONA INDUSTRIAL Pol., 188
EKAINAK 28	OIARTZUN	MAKUTXO BIDEA, 5
UZTAILAK 3	BERASTEGI	ARTALEKUN, AITZERGA AUZOA

Edozein zalantza edo argibide behar izanez gero, deitu adierazitako telefono zenbakira.

Ondo izan,

Azpeitian, 2023ko maiatzaren 18an

**OHARRA:** Datu Babesen legearen arabera datorren kanpainan ez baduzu informaziorik jaso nahi, mesedez, jakinarazi telefono zenbaki honetan: 696 433 602.

Laguntzailea:



Antolatzaileak:

